

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2944

*503/2024 EBAZPENA, maiatzaren 30ekoa, Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Tolosaldeko ESiko Villabonako Lehen Mailako Arretako Unitateko Erizaintzako Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko.*

Tolosaldeko ESiko Villabonako Lehen Mailako Arretako Unitateko Erizaintzako Gainbegirale lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiruugarren arau komunean, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztaillaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Zuzendaritza Gerentzia honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea, honako oinarrien arabera

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea B1 lanbide-taldean.
- B1 titulazioa edukitzea.
- Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea B1 lanbide-taldean.
- Hizkuntza-eskakizuna. 2. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data 2019ko abenduaren 3a).
- Uztaillaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

##### 2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

- Lan-esperientzia Lehen Mailako Arretan azken bost urteetan.
- Lehen Mailako Arretako erizaintzako unitateak planifikatzeko eta antolatzeko esperientzia eta/edo prestakuntza izatea.
- Esperientzia izatea taldeak antolatzen eta kudeatzen.
- Ezagutzak ofimatikan eta lanpostuarekin zerikusia duten aplikazio informatiko korporatiboetan (Osabide AP/OGP).
- Irakaskuntza-esperientzia.
- Ikerketa-proiektuetan parte hartzea.

g) Osasun Zentro bateko Lehen Mailako Arretako Unitatea kudeatzeko memoria-proiektua.

h) Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahal izango da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Tolosaldeko ESiko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (San Esteban auzoa z.g., 20400 Tolosa). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran aurkeztu ahal dira eskaerak.

Interesdunek Tolosaldeko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (San Esteban auzoa, z.g., 20400 Tolosa), beren datu pertsonal guztiekin eta Curriculum Vitae dokumentatuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: zuzendari-gerentea batzordeburu gisa, Erizaintzako Ondokoa batzordekide gisa eta Langileen Teknikaria idazkari gisa, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die. Egokitzen jotzen badu, elkarrizketa pertsonal bat egitea erabaki ahal izango du.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposatu ahal du epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

#### 6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ezta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Prozedura amaitzeko ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Tolosaldeko ESiko zuzendari-gerentearen ebazpen baten bidez amaituko da honen bidez hasitako prozedura (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea). Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzaren intranetean eta Osakidetzaren web-orri korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAAn argitaratzen den egunetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

#### 8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tolosa, 2024ko maiatzaren 30a.

Tolosaldeko ESiko zuzendari-gerentea,  
MARIA LUZ JAUREGUI GARCÍA.